

Euskadiko Elikadura Jasangarriaren RIS3 Estrategia

(2024ko
zerumuga)

2023ko otsaila



Índice

0. SARRERA	3
1. ELIKADURA JASANGARRIAREN TESTUINGURUA	4
1.1. EUROPA: ELIKADURA JASANGARRIA LORTZEKO ESTRATEGIAK ETA PLANAK	4
1.2. EUSKADI: ELIKAGAIEN BALIO-KATEAREN GARRANTZIA	8
2. ELIKADURA JASANGARRIKO RIS3 ESTRATEGIA	10
2.1. ELIKADURA: AUKERA-EREMUA RIS3 ESTRATEGIAN	10
2.2. GOBERNU-EGITURA: ELIKADURA JASANGARRIKO GIDARITZA-TALDEA	12
3. ESTRATEGIA ZABALTZEKO JARDUERA	14
3.1. ESTRATEGIAN SAKONTZEA: GAI-ARLOAK	14
1. GA: ELIKADURA-EKOSISTEMA SEGURUAK, JASANGARRIAK ETA OSASUNGARRIAK	16
2. GA: NUTRIZIO PERTSONALIZATUA	17
3. GA: ELIKAGAI ETA PROTEINA-ITURRI BERRIAK ZAHARTZE OSASUNGARRIRAKO	18
4. GA: ELIKADURA JASANGARRIRAKO EKIPAMENDU-ONDASUNAK	19
5. GA: ELIKAGAIEN BALIO-KATEA DIGITALIZATZEA	20
6. GA: ELIKADURA FUNTZIONAL, OSASUNTSU ETA JASANGARRI BATEKO SUKALDARITZA-GARAPENA	22
3.2. ABIAN JARRITAKO JARDUKETAK	23
ESKAINZTA TEKNOLOGIKOA IRUDIKATZEKO ETA GARATZEKO JARDUKETAK	24
ENPRESA-ESKARIAREN ANALISI-JARDUKETAK	26
I+G+B DINAMIZATZEKO JARDUKETAK	28
3.3. LAGUNTZA-TRESNAK	29
4. ETORKIZUNERA BEGIRAKO IKUSPEGIA	35

01. Sarrera



Europako Batzordeak I+G+b-ko eskualde-mailako politikak diseinatzeko emandako gidalerroei jarraituz, Euskadik Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2020 ezarri zuen, espezializazio adimenduneko Euskadiko eskualdeko lehenengo estrategia (RIS3 izenekoa). Plan horrek honako ideia honi erantzuten dio: eskualdeek espezializazioa identifikatu eta bilatu behar dute teknologia- eta ezagutza-arlo zehatz batzuetan, baldin eta horietan lehiakortasun-ahalmen handia eta aberastasuna eta enplegua sortzeko aukerak badituzte. RIS3 estrategiak Euskadiko espezializazio-arloak eta etorkizuneko aukerak dituzten arloak definitzen ditu, enpresa-jarduera eta arlo horien inguruko gaitasun zientifiko-teknologiko garrantzitsuak konbinatuta egoteagatik.

ZTBP berria indarrean jartzean, 2030ari begira, Euskadiko RIS3 estrategia eguneratu da, eta elikadura jasangarria gehitu du hiru lehenetsu nagusiak osatzen dituzten lau aukera-arloen artean (energia garbiak, industria adimenduna eta osasun pertsonalizatua dira beste hirurak). Arlo horiek ia berdintzen dira aurreko alditik.

Dokumentu honen abiapuntua egungo testuinguruaren eta elikaduraren (Europa mailan, hori sustatzeko helburuak zuzenean edo zeharka biltzen dituzten plan eta estrategia ugari bidez, eta Euskadi mailan, elikagaien balio-katean eta lotutako planetan jarduerak duten garrantzia erakutsita) aurkezpen laburra da, **2024ari begira Elikadura Jasangarriaren Euskadiko RIS3 estrategia definitzeko eta hedatzeko gakoan**, hau da, lehenengo etaparen, azalpenean oinarritzeko.

Zehazki, aurrerapenak erakusten dira zenbait mailatan:

- Hasiera batean sortutako gobernu-egiturak estrategiaren hasiera bideratzeko eta bultzatzeko (gidaritza-taldea).
- Estrategian sakontzean egindako aurrerapenak, 2030eko ZTBPN zehaztutako oinarrien eta gidalerro orokorren bidez (gai-arloak).
- Orain arte garatutako eta aurreikusitako jarduera-ildo nagusiak.
- Euskadiko elikagaien balio-kateko enpresei eta eragileei laguntzeko tresnak.

01. Elikadura jasangarriaren testuingurua


1.- Europa Elikadura jasangarria lortzeko estrategiak eta planak

Elikadurak zeregin garrantzitsua dauka Europako egungo erronken artean. Erronka horien adierazle nagusia Itun Berdea edo Green Deal da, gizarte ekitatibo eta oparogisa hazkunde iraunkorra lortzeko Europaren apustu nagusiaren bidez eratua, eta Europako politika guztiek bide horretara heltzeko lagundu behar dute.

Itun Berdeak Europak bilatzen duen garapen-paradigma berria markatzen du; ekonomia-, ingurumen- eta gizarte-helburuen arteko oreka zaindua mantendu behar du; izan ere, ikuspegi berri horretatik, ezin da aurreikusi hiru zutabe horien baterako jasangarritasuna ziurtatzen ez duen eredu ekonomikorik. Nekazaritzako elikagaien balio-katea ez dago transmisio berde eta digital bikotzetik at, paradigma

berri horren beharra baitu, bereziki egungo testuinguru geopolitiko eta sanitarioan.

Itun Berdearen bidez markatuta zeharkako gidalerroen menpe, elikaduraren esparruak estrategia espezifikoak ditu, hala nola Food 2030 edo “Baserritik mahaira”, baita ondorioak dituzten beste batzuk ere, baina irispen zeharkakoagoa dutenak, hala nola “Ekonomia zirkularreko ekintza-plana” edo “Biodibertsitate-estrategia”. Ildo horretan, 1. irudiak teknologiaren, garapen ekonomikoaren, osasunaren eta ingurumen-jasangarritasunaren planoetatik elikaduran modu zuzenean edo zeharkakoan eragiten duten plan eta estrategia nagusiak biltzen ditu.



1. irudia. Europan elikaduraren esparruan sustatutako planak (iturria: geuk egina)

Europako Batzordeak Food 2030 estrategia planteatu du, honako xede honekin: elikagaien eta elikaduraren segurtasunaren erronkari aurre egitea, gure elikadura-sistemen etorkizuna bermatzera zuzendutako ikerketa-, eta garapen-politiken bitartez (I+G), horrela jasangarriagoak, erresilienteagoak, arduratsuagoak, inklusiboagoak, anitzagoak eta lehiakorragoak izan daitezzen. Estrategia horrek Europar Batasuneko elikadurako I+G-ren esparrua eratzen du (oinarriko lau lehentasun ditu: elikadura, klima, zirkulartasuna eta berrikuntza). Esparru hori I+G-ren Europako laguntzeko Horizon 2030 programaren bidez antolatzen da.

Baserritik Mahaira estrategiak bidea markatzen du Europako elikadura-sistema jasangarriago baterantz, balio-kate osoan errendimendu ekonomiko justua bermatzeko eta pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko (elikadurari lotutako segurtasuna eta osasuna barne). Horrez gain, klima-aldaketa geratzeko eta ingurumena eta biodibertsitatea babesteko helburua izan behar du.

2030ari dagokionez, estrategia horrek helburu kuantitatiboak ezartzen ditu: pestizida sintetikoaren erabilera % 50 murrizteko, ongarraren erabilera % 20 murrizteko eta mantenugaien galera eta antimikrobianoaren salmenta % 50 murrizteko. Gainera, 2030ean nekazaritza-azaleraren % 25

nekazaritza ekologikora bideratuta egon beharko da. Horrek guztiak lotura estua du Nekazaritza Politika Erkidearekin (NPE). Elikadura-sistema jasangarrietara heltzeko beharrezkoa den trantsizio berde eta digitalak markatzen dituzte politika horrek 2023-2027 aldirako dituen oinarriak. Ildo horretan, estatu kideetako NPE Plan Estrategikoetarako Araudi (NPEPEA) berriak 9 helburu espezifiko ezartzen ditu: 3 ekonomiko, 3 sozial eta 3 ingurumenekoak. Horrez gain, nekazaritza-sektorea modernizatzeko zeharkako helburua dauka, eta helburu horiek guztiek nekazaritza-jasangarritasunarekin eta Itun Berdearekin bat egiten dute.

2023-2027ko NPEk elikadura-sistema jasangarrietarako trantsizioa bermatzen du, Arkitektura Berdearen bidez. Arkitektura horrek lau elementu ditu epe berri horretan: baldintza indartuak, ingurumen- eta klima-erronkak lortzeko; nekazaritzako eta ingurumeneko neurriak, karbono gutxikoak eta klimatikoki erresilienteak diren ekonomietan lan egiten dutenei onura ekartzen dienak; ekoeskemak, zenbait nekazaritza-jardunbide bultzatzeko, ingurumen- eta klima-helburuekin bat; eta Nekazaritzako Ezagutza eta Berrikuntza Sistemak (NEBS; edo ingelesez AKIS), modernizazio sektoriala bultzatzeko ikerketaren, berrikuntzaren, ezagutza partekatzearen eta digitalizazioaren bidez.

Europako Batzordeak estatu kideetako NPEPEAetan Itun Berdeko printzipio jasangarriak gehituko direla bermatu du, horietako bakoitzerako gomendio espezifikoen bidez. Batzordeak Espainiako Estatuari honako hauekin lotutako neurriak indartzeko eskatu zion: lehen mailako ekoizpenen bidezko errendimendua lortzea eta sektore hori balio-katean indartzea, lehen mailako sektoreak klima- eta ingurumen-helburuei egindako ekarpena bultzatzea, eta beste neurri batzuk, hala nola animalien ongizatea; ongarrien, plagiziden edo antimikrobianoen erabilera edo landa-eremuetako aktibazio ekonomikoa; eta, horrez gain, 2025ean landa-eremuen eta urruneko eremuen % 100ean banda zabala izatea.

Politika zeharkakoenei dagokionez, Biodibertsitate Estrategiak nekazaritza ekologikoaren sustapena jasotzen du berriz ere, eta honako hau gehitzen du: 2030erako, nekazaritza-azaleraren % 10ek gutxienez dibertsitate biologikoari laguntzen dioten paisaia-elementuak mantentzea. Gainera, Europako lurraldearen eta itsasoen % 30 eremu babestuak izan beharko dira eta azalera horren heren bat babes zorrotzeko araubidearen menpe egongo da.

Ingurumen-jasangarritasunari dagokionez, gainerako esparru ekonomikoetan bezalaxe, elikadurak berotegi-efektuko gasen (BEG) igorpena % 55 murrizten lagundu beharko du 2030erako, hori baita 2050erako Europaren neutraltasun klimatikoa lortzeko lehenengo erronka.

Horretarako, ezinbestekoa izango da lehen mailako sektorean biomaterialak erabiltzea, jatorri fosileko egungo materialak ordeztzeko, C-ren hustubide naturalak babestea eta handitzea, eta basoen eta nekazaritzaren erresilientzia erraztuko duten neurriak ezartzea, klima-aldaketaren ondorioen aurrean.

Ekonomia Zirkularraren inguruko hazkunde-eredu berriek prozesu eraginkorragoak hartzen dituzte baliabideen erabileran, eta horien zirkulartasun-tasa handitzen dute. Elikadura ekonomia zirkularraren balio-kate garrantzitsuenetako bat da; horregatik, elikadura-xahuketaren murrizketa eta ontzi jasangarriagoen erabilera izan behar ditu helburu. Herritarren ahalduntzea sustatzen da, eta produktu jasangarriagoak, seguruagoak eta osasungarriagoak eskatzen dituzte, erosten dutena aukeratzea ahalbidetzen dien informazio argiarekin. Ekoizten eta kontsumitzen dugun modua aldatu behar da.

Itun Berdeak, 2023-2027ko NPEk eta Europako gainerako planek eta estrategiek, egungo testuinguru geopolitikoarekin eta sanitarioarekin batera, agerian uzten dute elikadura-sistema jasangarriak izatearen garrantzia, zentzurik zabalenean, herritar guztiek eskura izateko kalitatezko elikagaiak eta elikagai seguruak eta osasungarriak, baina hazkunde ekonomikoa eta pertsonen bizi-kalitatea arriskuan jarri gabe. Horrez gain, elikadura-sistema horiek mesede egingo diete esku artean ditugun erronka sozialei, ingurumenekoei eta klimatikoei.

Itun berdeak ezartzen du Europak lortu nahi duen garapen-paradigma berria

Ekintza- ildoak	Lotutako estrategiak eta planak	2030erako helburuak
I+G+b sustatzea elikadura jasangarriaren eta osasungarriaren esparruan Europan, eta ezagutzaren transferentzia berrmatzea	<ul style="list-style-type: none"> • Food 2030 • One Health • Horizon Europe • 2030ko Helburu Digitalak 	
Landa-eremuak garatzea , balio-katean duten garrantzia handituta; horretarako, nekazaritza ekologikoa eta zehaztasuneko sustatzea digitalizazioaren bidez	<ul style="list-style-type: none"> • Food 2030 • NPE • European Green Deal • Farm to Fork • Biodibertsitate Estrategia • 2030ko Helburu Digitalak 	Nekazaritza-azaleraren % 25 nekazaritza ekologikora bideratzea
Elikadura-xahuketa murriztea ; gaur egun, ekoiztiko elikagaien % 20 xahutzen dela kalkulatu da	<ul style="list-style-type: none"> • Food 2030 • NPE • European Green Deal • Farm to Fork • One Health 	- Egungo elikadura-xahuketaren % 50 - % 50 mantengaien galeran
Elikagaien balio-kate zirkular baterantz eboluzionatzea, hondakinen kopurua ahal den neurrian murriztuta, produktu berrien eta ontziratze jasangarrien garapenaren bidez	<ul style="list-style-type: none"> • Food 2030 • NPE • European Green Deal • Farm to Fork • Ekonomia Zirkularren Ekintza Plana 	
Jardunbide jasangarriak sustatzea balio-katean , hala nola bio produktu berriak sortzea elikadura-hondakinen bidez, kimikoen mendekotasuna murriztea, nekazaritza-lurzorua higidura murriztea edo nekazaritza-sektorean energia berriztagarriak erabiltzea, besteak beste.	<ul style="list-style-type: none"> • Food 2030 • NPE • Farm to Fork • Ekonomia Zirkularren Ekintza Plana 	- % 50 pestiziden erabileran - % 50 mantengaien galeran - % 20 ongarrien erabileran - % 50 antimikrobianoen salmentetan
Elikagaien segurtasuna aurreratzea eta indartzea Europan, elikagaien bidez transmititu daitezkeen gaixotasunen ikerketaren eta monitorizazioaren bidez.	<ul style="list-style-type: none"> • Food 2030 • Farm to Fork • European Green Deal • Ekonomia Zirkularren Ekintza Plana 	
Dieta osasungarriak eta jasangarriak sustatzea , laguntza-neurrien bidez, hala nola kontsumitzailearentzako pizgarriak, mantengaien etiketatze harmonizatua eta elikagaien ingurumen-inpaktua, eskuragarritasuna eta elikagai jasangarriak hobetzea, etab.	<ul style="list-style-type: none"> • Food 2030 • Farm to Fork 	

1. taula. Ekintza-ildo nagusiak eta Europako elikaduran dituen helburuak

Laburbilduz, eta sakontzeko asmorik gabe, elikaduraren esparruko Europako plan eta estrategia ugarien artean zenbait ekintza-ildo edo gidalerro handi nabarmendu behar dira (1. taula). Estrategia horiek testuinguru eta helburuak markatzen dituzte, eta helburu horiei begira estatu kideek planak edo ekintzak hornitu beharko dituzte, dagokien mailaren arabera.


01. Elikadura jasangarriaren testuingurua

2.- Euskadi Elikagaien balio-katearen garrantzia


Elikadurarekin zerikusia duten jarduera ekonomikoak balio-kate oso baten barruan daude; kate horrek elementuak gehitzen ditu hiru jarduera-sektore handitan: lehen mailakoa (nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako ustiategiak), bigarren mailakoa (nekazaritzako elikagaien industria) eta hirugarren mailakoa (merkataritzako, banaketako eta jatetxeetako zerbitzuak).

Bere osotasunean, balio-kate horrek oso garrantzi handia dauka Euskadiko ehun ekonomikoan; dena den,

estatistikoki zatitzen denez, ez da beti oso-osorik ikusten. Zehazki, 2020an, Euskadiko elikagaien balio-kateak BPGdren % 9,4 sortu zuen, eta enpleguaren % 13,6 (guztira 96.500 enplegu). Segmentuen arabera, zerbitzuek (bai merkataritza, bai HORECA) hartzen dituzte BPGd-ren eta enpleguaren kuotarik handienak; hala ere, nekazaritzako elikagaien industria da ekoizpen handieneko industria, hau da, BPBd/enplegu harremanik onena duena.




2. irudia. Elikagaien balio-katearen ekarpena Euskadiko BPGd-ri (2020ko BPGd-ren gaineko %) (iturria: geuk egina, Eustat datu-basean)



3. irudia. Elikagaien balio-katearen ekarpena Euskadiko enpleguari (2020ko enpleguaren gaineko %) (iturria: geuk egina, Eustat datu-basean)

BPGd-ri eta enpleguari lotutako ordezkagarritasun nabarmen horrez gain, azpimarratzekoa da euskal elikagaien balio-kateko enpresen I+G+b-ren ahalegina eta potentziala. I+G arloa 2020an 108 enpresa zituen (gehien bat mikroETEak) talde batean metatuta dago, eta Euskadiko I+G arloko gastuaren % 4,6 osatzen dute.



4. irudia. I+G jarduerak egiten dituzten Euskadiko elikagai-enpresen kopurua, tamainaren arabera (iturria: geuk egina, Eustat datu-basean)

Aitzitik, berrikuntzako jarduerak hedapen askoz handiagoa dute, eta aurreikusten da 3.300 enpresa aktibo daudela Euskadiko elikagaien balio-katearen berrikuntzan.

02. Elikadura jasangarriko RIS3 Estrategia

1.- Elikadura: Aukera-eremua RIS3 estrategian

Euskadiko 2030eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planak espezializazio adimenduneko RIS3 estrategiaren eguneratzea jasotzen du, eta, horren barruan, elikadurak garrantzia hartzen du, Euskadiko apustu estrategikoen barruan baitago.


Zehazki, RIS 2030 estrategiak hiru lehentasun nagusi eta lau aukera-esparru identifikatzen ditu, Euskadiko gaitasun enpresarialen eta zientifiko-teknologikoen arabera; bi dimentsioko grafikoan ikus daitezke (5. irudia).

Elikadura osasungarriarena da Euskadiko lau aukera-esparruetako bat. Estrategia hori zahartze osasungarriko kalitatezko elikagaiak garatzera bideratuta dago, eta, ikerketaren eta berrikuntzaren bidez, nekazaritzako elikagaien industriak euskal ekonomian duen pisua indartzen du. Horretarako, Euskadiko elikagaien industriak espezializatu egin behar du balioa sortzen, prozesuak gero eta efizienteagoak baitira.

Honako hauetan oinarritu behar da:

- Ekosistema seguruagoak, iraunkoragoak eta osasungarriagoak.
- Elikadura-osasuna binomioarekin geroz eta kontzientzia handiagoa duen biztanleriarentzako zerbitzu eta produktuen sorta berria garatzea.
- Teknologia digital eta bioteknologiko berriak sartzea, ekipamendu-ondasunak fabrikazio aurreratuaren bidez garatzeko potentzialarekin batera.
- Sukaldaritzaren garapena nazioarteko posizionamendu gastronomiko gisa, kulturari eta ondareari lotuta.

Gainera, RIS3 estrategiak elikadura osasungarriaren esku-hartzea aurreikusten du 2030eko ZTBPN zehaztutako bi Zeharkako Trakzio Ekimen garatzeko (zahartze osasuntsua eta ekonomia zirkularra). Horregatik, beste lehentasun eta aukera-esparru batzuekin koordinatu behar da. Elikadurak bi Zeharkako Trakzio Ekimen horiei (ZTE) egin diezaieken ekarpena zenbait ildoren bidez ikus daiteke:



5. irudia. Euskadirako zehaztutako RIS3ko lehentasunak eta aukera-nitxoak (iturria: ZTBP 2030)

- Zahartze osasuntsuko ZTE:
 - Elikadura-produktuen garapena, gaixotasunen prebentzioari eta bizikaltatearen hobekuntzari laguntzeko.
 - Behar espezifikoak dituzten kolektiboentzako elikadura-estrategia berriak.
 - Jatorri naturaleko proteinen iturri alternatiboak.
 - Ekonomia zirkularreko ZTE:
 - Uraren eta energiaren kontsumoa eta balio-kate osoko igorpenak murriztea.
 - Ingurumen-inpaktuaren murrizketa eta energia berriztagarriak erabiltzea, beharrezkoa denean (nekazaritzako elikagaien ekoizpena, adibidez)
 - Soberakinak eta azpiproduktuak errealizatzea.
 - Prozesu guztietako hondar-beroa aprobetxatzea.
 - Garbiketa-uren inpaktua murriztea eta kutsatzaileak kentzea hondakin-uretatik.
 - Ahalgaitzak eta zientzia- eta teknologia-sistemak horren inguruan dituzten gaitasunak handitzeko interesa eta apustua baieztatzea.
 - Modu aktiboan indartzea ezagutza, teknologia eta berrikuntza, Euskadiko elikagaien balio-katearen lehiakortasunaren funtsezko palanka gisa, arreta berezia jarrita ETE-en eta mikroETE-en kolektiboa sustatzean, enpresa berriak gehitzeko berrikuntzaren ekosisteman.
 - Beharrezko baliabideak eta jarduerak mantentzea joera eta aukera nagusiak goiz eta etengabe identifikatzeko, sektoreko tokiko eta nazioarteko adituen bidez.
 - Aukera-esparruan hiru trantsizioak gehitzen direla bermatzea: teknologiko-digitala, energetikoa eta ingurumenekoa eta demografiko-kulturala, elikaduraren ekosisteman.
 - Aukera-esparrua bere osotasunean lerrotzea eta koordinatzea martxan jartzen diren trakzio-ekimenetara (bereziki uneotan osasunera/zahartzera) eta ekonomia zirkularra.
 - Gobernu- eta lankidetzak egiturak finkatzea RIS3 estrategiaren hedapen operatiborako elikaduraren esparruan, Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistemako eragileen partaidetza eta ekarpena errazteko.
- Elikadura Euskadiko espezializazio-arlo gisa hartzeak (RIS3 estrategiaren barruan) zenbait inplikazio ditu:
- Euskadiko elikadura-sektorearen izaera estrategikoa eta enpresa-ehuna dinamizatze

02. Elikadura jasangarriko RIS3 Estrategia

2.- Gobernantza egitura Elikadura jasangarriko gidaritzataldeak

RIS3 estrategiaren hedapena (bai lehentasunak, bai aukera-esparruak) ad hoc gobernu-egitura baten bidez (gidaritzataldeak) antolatzen da espezializazio-arlo bakoitzean.

Elikadura jasangarriaren gidaritzataldeak helize hirukoitzeko eragileak (enpresak, I+G+b ekosistemako eragileak eta Administrazio Publikoa) osatzen dute eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren, eta, zehazki, Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetzaren menpe dago.

Gidaritzataldearen lehenengo erabakietako bat elikadura-estrategiaren irismen kontzeptuala hedatzea izan da, modu

doituago batean erantzuteko bertan praktikan hedatu beharreko helburuei eta jarduerari; hala, dagokion aukera-esparruari izena aldatu zaio: "Elikadura jasangarria", "elikadura osasungarria"-ren ordean (horrela agertzen da ZTBPN).

Gidaritzataldeak egitura operatiboa dauka (6. irudia), partaidetza- eta praktikotasun-mailari dagokionez orekatua. Egitura horretan egitura iraunkorra mugatzen eta ekintzara bideratuago dagoen behin-behineko egitura garatzen saiatzen da (batzorde estrategikoa + lantaldeak + jarduerak/proiektuak).

	Batzorde Estrategikoa	Lantaldeak	Jarduketak / proiektuak
Partaideak	<ul style="list-style-type: none"> Eiko EGJISren presidentetza Helize hirukoitzeko funtsezko eragileen (administrazioa, enpresa eta ZTBES) ordezkaritza elikagaien balio-kate osoaren esparruan 	<ul style="list-style-type: none"> Batzorde Estrategikoaren proposamen baten menpe Bi kategoriatan bereziak: <ul style="list-style-type: none"> Teknikoak: estrategiaren funtsezko arlo teknologikoetan oinarrituak Zeharkakoak: estrategia zabaltzeko euskarri-elementuetan oinarrituak (zaintza, jarraipena, neurketa...) 	<ul style="list-style-type: none"> Dagokion lantaldeak eta/edo erakunde sustatzaileak erabaki beharrekoa Ezagutzagatik eta ekarpenagatik parte hartzea, eta ez ordezkapenagatik
Denbora-muga	<ul style="list-style-type: none"> Iraunkorra 	<ul style="list-style-type: none"> Behin-behinekoa (berrikusgarria) 	<ul style="list-style-type: none"> Behin-behinekoa (hasiera eta amaiera zehaztuta daude)
Helburuak/emaitza	<ul style="list-style-type: none"> Erabakiak hartzeko eta RIS3 Sailarteko Batzordearekin bi norabideko komunikaziorako organoa Estrategiaren ezarpena bideratzea, jarraitzea eta aurrerapenak eta emaitzak ebaluatzea Lantaldeen eta/edo proiektu estrategikoen gaiak proposatzea 	<ul style="list-style-type: none"> Gidaritza-taldearen ekimenak koordinatzea eta horiek jaulkitzea, bere eskumeneko esparruan Jarduketak/proiektuen emaitzak jarraitzea eta baloratzea Jarduketak/proiektuak jaulkitzea proposatzea eta/edo lankidetzak aukerak identifikatzea 	<ul style="list-style-type: none"> Gidaritza-taldearen edo lantaldeen jarduerari esker sortutako jarduketak eta proiektuak Horien bidez, azkenean strategiaren garapenean aurrera egiten da

Hazi Fundazioa, Idazkaritza tekniko zereginak garatuz

6. irudia. Elikadura jasangarriko gidaritza-taldearen egitura

Egituraren oinarria maila altuko Batzorde Estrategiko batek osatzen du, eta horretatik irismen zehatzagoko foroak sortzen dira, elikadura jasangarriaren estrategian interes-eremu nagusiak koordinatzeko (lantalde teknikoak eta zeharkakoak edo euskarri-lantaldeak). Lantalde horiek (partaideen zerranda 1. eranskinean dago) egitura bizi gisa planteatzen dira, eta egitura horrek estrategia hedatzeko prozesuan sortutako beharren eta aukeren arabera eboluzionatzen du eta eraldatzen da.

Lantaldeetan garatutako eztabaidek eta analisisiek, azkenean, ekimenak eta proiektuak definitu eta abiaraztea dakarte, banaka diseinatutako ikuspegi eta parte-hartzaileak dituztenak, eta horien bidez gauzatzen da strategiaren hedapen operatiboa praktikan.

Presidentetza/ lidergoa :	<p>Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila</p> 	Enpresak	<p>Nekazaritzako/abeltzaintzako ekoizpena:</p> 	<p>Esnekiak:</p> 
Administrazioa, erakunde publikoak eta eragileak			<p>Arrantza:</p> 	<p>Edariak:</p> 
Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea			<p>Arrantzako eraldatuak:</p> 	<p>Retail:</p> 
Kluster erakundeak			<p>Haragia:</p> 	<p>Nekazaritzako elikagaien esparrua, enpresa-sustapena</p> 
Idazkaritza teknikoa			<p>Lantegiak:</p> 	

7. irudia. Batzorde Estrategikoko kideak.

Azkenik, gidaritza-taldeko gobernu-egituraren mailen integrazio- eta euskarri-elementu gisa, Hazi fundazioak idazkaritza tekniko zereginak egiten ditu Katiluren bidez. Katilu berrikuntza eta lankidetzak dinamizatzekeko fundazioaren talde espezializatua da.


03. Estrategia zabaltzeko jarduera

1.- Estrategian sakontzea gai-arloak

2030eko ZTBPN jasotako elikadura jasangarriko aukera-esparruko maila altuko gidalerroetatik abiatuta, aurrerapausoa eman da estrategiaren irismena zehazteko eta egituratzeko.

Ilido horretan, gidaritza-taldeak 6 gai-arlo (GA) estrategiko

zehaztu ditu eta hasierako hausnarketa bat egin du horietako bakoitzean, aurrerapausoa bideratu eta sustatzeko oinarrietan sakontzeko. Horretarako, lantalde teknikoak sortu dira gai-arlo horietako bakoitzean, eta hasierako agindua da erronkak, funtsezko teknologiak eta helburuak identifikatzea, besteak beste.



8. irudia. Gidaritza-taldeak zehaztutako gai-arlo estrategikoetan sakontzea.

Zenbait esparrutan irismenari eta partaideei dagokienez puntu komunak daudenez, azkenean lantalde beretik heldu zaie, batetik, 2. eta 3. esparruei, eta, bestetik, 4. eta 5. esparruei.

Gai-arloari lotutako hausnarketa horiek aintzat hartzen dituzte guztietan aplikatu beharreko zenbait irizpide edo gidalerro estrategiko:

- **Eskarian fokua jartzea.** Enpresen eskariak eta/edo beharrek markatutako ibilbide-orriak diseinatzea, haien gaitasunak aintzat hartuta.
- **Emaitzak lortzera bideratuta egotea.** I+G arloko eta berrikuntzako lehentasunetan oinarritzea eta lehentasun horiek epe laburreko eta ertaineko (2-3 urte) ETE-entzako aukerak lortzera zuzentzea.
- **ETE-etarako ezagutza-transferentzia azeleratzea.** Setik gorako TRLetan lehentasunezko fokua jartzea, konponbide eskalagarriekin eta ETE-etan duten

eragina baloratuta. Gainera, aintzat hartzen dira ETE-ek teknologiak eta berrikuntzak gehitu ahal izateko baldintzak, bai prozesuan, bai produktuan.

- **Kontsumitzaileen protagonismoa.** Laugarren helizea (kontsumitzaileak eta herritarrak) aintzat hartzea beharrezko esparruetan eta balioa ematea.

Gainera, planteamendu estrategikoak eta horren hedapenak lerrokatuta egon behar dute eta elikadurarekin zerikusia duten Euskadiko programei eta planei lagundu behar diete. Horien artean daude elikadurara zuzenean bideratutako planak, hala nola Gastronomía eta Elikaduraren Plan Estrategiko berria (PEGA 2024) eta Euskal Ikerketa Plana 2022-2026 Baserritik Mahaira ekimena (ikus 9. irudia), eta elikadurari zeharka eragiten diotenak.



9. irudia. Elikaduraren sektorean eragina duten Euskadiko estrategiak eta planak

Pilotaje Taldeak sei Gai Eremu Estrategiko (LI) zehaztu ditu

1. GA: Elikadura-ekosistema seguruak, jasangarriak eta osasungarriak

Arlo bakoitzean identifikatutako erronkak artatze aldera (segurtasuna, jasangarritasuna eta osasuna) eta erronka horiei heltzeko funtsezko teknologiak zehaztu ostean, lehentasunezko ekintza-ildoak ezarriko ditu dagokio lantaldeak.

- Elikadura zirkularra: elikadura-hondakinetik ontzi aktibo eta jasangarrira.
- Jasangarritasunaren ebaluazio integrala egiteko eta eskuragarri dauden teknika onenen aplikaziorako tresnak.
- Nekazaritzako elikagaien sektorearen dibertsifikazioa elikagaien tokiko hornidura hobetzeko.
- Elikadura-segurtasuna esne gordinarekin egindako gaztetan.
- Animalia-ongizatea egiaztatzea.

Lehentasunezko ekintza-ildo horiek lantaldea osatzen duten enpresen eta eragile teknologikoen arteko adostasunaren emaitza dira, beste ildo batzuk aurreikusi dituen hausnarketa batean, hala nola olio-landareen erabilera integrala, artzaintza birsortzailea, kultibo estentsiboetako zehaztasuneko ongarritzea, gaixotasunen arriskuaren aurreikuspena fitosanitarioen erabilera murrizteko, ureztatzeko uraren erabilera optimizatzea edo antibiotikoen zentzuzko erabilera. Horrez gain, epe laburrean sustatu beharreko esparru batzuk zehaztu ziren, elikagaien xahuketaren hautematean eta murrizketan aurre egiteko beharrezkoak, baliabideen kontsumo eraginkorra ezartzeko, balio-katearen maila guztietako igorpenak eta ingurumen-inpaktuaren murrizketa bilatzeko, ekoizpen ekologiko lehiakorerrako eta konponbide teknologiko berrietan oinarritutako zehaztasuneko nekazaritzarako.

Enpresek elikatzen dituzte jarduera-ildo horien beharrak

2. GA: Nutrizio pertsonalizatua

Euskadik nutrizio pertsonalizatuan dituen erronkak zehaztu eta adostu ostean, funtsezko teknologiak ezartzen dira eta plano operatibora jaisten da. Hala, erronkei aurre egiteko beharrezkoenak diren berrikuntza- eta ikerketa-ildoen identifikazioan sakontzen da, eta enpresa-sektorearen interesa ziurtatzen da. Ildo horretan, enpresek jasotzen dute jarduketa-ildo horien beharren onura. Enpresa horiek honako esparru hauetara bideratuta daude: herritarren nutrizio-beharrek elikagaien osaerarekin duten interakzioa ezagutzeko, biztanleria-profilen nutrizio- eta osasun-premia horiek eta jarraibide dietetikoak identifikatzeko eta ikerketarako behar beste partaide biltzea. Irizpide horiek markatzen dituzte epe laburreko eta ertain-luzeko jarduera-ildo nagusiak:

NUTRIZIO PERTSONALIZATUA	
Epe laburreko berrikuntza-ildoak	Epe ertain-luzeko ikerketa-ildoak
<ul style="list-style-type: none"> • Omikoetan oinarritutako konponbideak garatzea, beste ezagutza batzuen laguntzarekin, nutrizio pertsonalizatua lortzeko. Helburua da elikadura-produktu berrien diseinua erraztea, kolektibo jakin batzuen banakako eta taldeko beharrei erantzuteko, eta dietak garatzea. • Adimen artifizialeko eta Big Data teknologiak aplikatzea metodologiak, konponbideak eta monitorizazioko sistema arinak garatzeko, automatizazioan oinarritutako datuak biltzeko; gainera, datu omikoak, gailu mugikorretatik jasotako beste datu batzuk eta/edo informazio medikoko datuak gehitzen dira. • Kontsumitzailearen segmentazio berria, profil molekularretan oinarrituta, elikadura-gomendioak pertsonalizatzeko kontsumitzaileen eskaria asetzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> • Osasun-markatzaile berriak identifikatzea, konposatu bioaktiboek, osagaiek, elikagaiak edo dietek osasunean eredu aurreklinikoetan eta klinikoetan daukaten eragina aztertzeko. • Esku-hartze nutrizionaleko ikerketak egitea, dietetan, elikagaietan eta osagarrietan nutrizio-gomendioak ikuspegi pertsonalizatu batetik ematea osasunarentzat onuragarria dela frogatzeko. • Teknologia omiko garrantzitsuenak identifikatzea, ematen duten informazioari dagokionez; baina, aldi berean, ekonomikoki eskuragarriak izan beharko dira, elikadura- eta osasun-programetan txertatu ahal izateko.

2. taula. Jarduketa-ildo nagusiak nutrizio pertsonalizatuaren esparruan.

3. GA: Elikagai eta proteina-iturri berriak zahartze osasungarrirako

Arlo hau eta nutrizio pertsonalizatuarena lantalde berean osatu ziren, haien arteko lotura dela eta (elikagai eta proteina-iturri berrien garapenaren bidez lor daiteke). Ildo horretan, zenbait erronka zehazten dira elikagai berrien garapenean eta proteina-iturri berrien lorpenean. Erronka horiek kontsumitzaileen jarreraren ikerketan oinarritu behar dira, Euskadin ekonomia berria sortu ahal izateko eta euskal enpresak bereizteko. Horrela, lantaldeak epe laburreko eta ertain-luzeko jarduketa-ildoetan sakondu du; horretarako, une oro oinarritu eta elikatu da enpresek nabarmendutako beharrez eta jarduketak eskari sektorialarekin lerrokatzeko xedearekin.

ELIKAGAI ETA PROTEINA-ITURRI BERRIAK ZAHARTZE OSASUNGARRIRAKO	
Epe laburreko berrikuntza-ildoak	Epe ertain-luzeko ikerketa-ildoak
<ul style="list-style-type: none"> Elikagai berriak diseinatzea (lehengaien eta gaur egun existitzen diren prozesuen iturriak), aintzat hartuta elikagai horien formulazioa eta prozesatzea, zahartze osasungarria lortzeko. Horretarako, obesitatea eta eratorritako gaixotasun kronikoak murriztu behar dira, kontsumo-une bakoitzari egokিতuta. Produktuak dibertsifikatzea, kontsumitzaileei dieta orekatuak eta jasangarriak eskaintzeko. Kontsumitzaileen jarrera ikertzea eta haiekin kontrastatzea egungo merkaturako garatutako elikagai osasungarri berriak. Jatorri naturaleko proteina-iturri alternatiboak garatzea eta ikertzea, giza elikadura jasangarria eta osasungarria lortzeko. Elikagaien osagaiak ekoiztea eta eraldatzea, biztanleria orokorrari egokিতutako elikagai berriak sortu ahal izateko. 	<ul style="list-style-type: none"> Osagai berriak (hala nola proteinak, gantz-azidoak, etab.) modu jasangarrian lortzea, ekoizpen-metodo berrien bidez (adibidez, bioteknologia bidez). Metodo horiek elikagai osasungarriak eta hedonikoak garatzeko ezaugarri teknologiko eta osasungarri egokiak izan beharko dituzte, biztanleria orokorrari egokিতuak eta/edo espezifikoari bideratuta, arrisku-faktoreak, obesitatearen eragina eta gaixotasun kronikoak murrizteko. Kontsumitzaileak etorkizuneko merkatuetarako elikagaien aurrean duen jarrera ikertzea. Osagai berriak (osasun "claim"-a dutenak edo hori gabekoak) gehitzea eta egonkortzea elikadura-matrize osasungarri eta konplexuetan eta elikagai osasungarri eta konplexuak garatzea eta baliozkotzea, gerora horiek baimentzea eta merkatuan jartzea errazteko.

3. taula. Zahartze osasungarrirako elikagai eta proteina-iturri berrien esparruko jarduketa-ildo nagusiak.

4.GA: Elikadura jasangarrirako ekipamendu-ondasunak

Elikagai-industriak bere premiei erantzuten dien askotariko ekipamendua eta makineria erabiltzen du prozesuetan, kasu askotan sektoreko espezifikoak, eta denborarekin eboluzionatu egiten dute. Horrela, alderdi hauei erantzuteko gai dira: ekoizpena, elikadura-segurtasuna, hondakinen murrizketa, nutriente berrien erauzketa eta txertaketa... Aldi berean, Euskadi ezaguna da industria-sektore sendoa izateagatik, bai eta gaitasun teknologiko eta erantzun-gaitasun handikoa izateagatik ere ekipamendu-ondasunen eta makina-erremintaren arloan. Hori dela eta, arlo hori sortu da eta erantzuna eman nahi dio elikadura-sektoreari ekoizpen-ekipamendu

berritzailea emateko aukerari, eta aldi berean, makineria-fabrikatzaileetarako merkatu berria sortzeari.

Ildo horretan, abiapuntutzat egungo eskaintza teknologikoaren eta elikadura-sektoreko enpresen epe laburreko premien diagnostiko bat egin da, eta hauek identifikatu dira: ildo desberdinetako potentziala (ikus 4. taula), sentsoreak, azalera multifuntzionalak, automatizazioa eta robotika industrialak, trazabilitatea eta datuen analitika, eta ekonomia zirkularra.

ELIKADURA JASANGARRIRAKO EKIPAMENDU-ONDASUNAK	
Sentsoreak	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Ad hoc</i> sentsoreak balio-kate osoa estaltzeko. • Animalien ongizatearen monitorizazioa. • Alergeno, patogeno, pestizida edo kutsatzaileak detektatzea. • Animalien ongizatearen monitorizazioa.
Azalera multifuntzionalak	<ul style="list-style-type: none"> • Azaleren testurizazioa (NIL teknologia, laserra edo fotolitografia). • Estaldurak (PVD teknologia, Sol Gel), elikagaien kalitatea eta segurtasuna hobetzen duten eta errazago manipulatzeko aukera ematen duten propietate berriak emateko.
Automatizazioa eta robotika industrialak	<ul style="list-style-type: none"> • Kalitate-kontrol automatizatua. • Prozesu-lineako produktuen hautaketa. • Gai arrotzen detekzio automatizatua. • Linea amaieran, erreferentzia askoko eskera pertsonalizatuak egitea.
Trazabilitatea eta datuen analitika	<ul style="list-style-type: none"> • Datuen kudeaketa eta analitikako Internet of Things plataformak. • Ekoizpen-sistemen optimizazioa, elikagaien kalitate, trazabilitate eta segurtasunari buruzko informazioarekin. • Modelo analitiko prediktibo eta moldagarriak, datuetan oinarrituta.
Ekonomia zirkularra	<ul style="list-style-type: none"> • Ur, energia eta emisioen kontsumoa murriztea. • Ingurumen-inpaktua minimizatzea eta energia berriztagarriak txertatzea. • Soberakinak eta azpiproduktuak errealizatzea. • Prozesuen hondar-beroa aprobetxatzea. • Garbiketaren inpaktua murriztea eta hondakin-uretan kutsatzaileak ezabatzea.

4. taula. Euskadiko nekazaritzako elikagaien sektorerako teknologien eskaintzaren irismena.

5. GA: Elikagaien balio-katea digitalizatzea

Digitalizazioak zeharkako eta irismen zabaleko inpaktua dauka elikaduraren arloko garapen eta hobekuntzako beharrian eta ildoetan. Arlo horretako planteamendu estrategiakoaren abiapuntua digitalizazioak konponbideak eta onurak ematen dizkien elikagai-enpresen beharrianak identifikatzea eta lehenestea da. Zentzu horretan, **enpresen 5 beharrian** mota lehenetsi dira eta **digitalizazioak** horietako bakoitzean **ekar ditzakeen onurak** ikusgai jartzen dira. Zehatz-mehatz, digitalizazioaren bidezko lehenetasunezko beharrianak eta onurak nabarmenenak hauek dira:

- **Jasangarritasuna:** Fabrikazioan ingurumen-inpaktua murriztea, kontsumitzaileei begira emisioen maila sakonago ezagutzea eta Europako legedia betetzeko prest egotea.
- **Prozesuen automatizazioa:** Fabrikazio-akatsak minimizatzea, produktuen erreplikagarritasuna ziurtatzea, kostuak murriztea, elikagaien, lanaren eta informatikaren arloko segurtasuna handitzea, mantentze-lan prebentiboak eta zuzentzaileak egitea eta industria-ekoizpenaren kalitatea erabat kontrolatzea.

- **Bezeroak erakartzea eta datuak partekatzea:** Erabakiak hobeto hartzea, produktu eta zerbitzu berriak identifikatzea, kostuak murriztea, arriskuak aldeztetik aztertzea eta aurreikustea, bezeroak modu eraginkorragoan kudeatzea eta elikadura osasungarria izaten laguntzea.
- **Trazabilitatea:** Galerak murriztea, balio-katearen ikuspegi orokorra erraztea, elikagaiak bermatzea, iruzurrezko informazioa saihestuz, elikagaien segurtasuna bermatzea, gardentasuna ahalbidetzea eta produktibitate handiagoa lortzea.
- **Kultura digitala:** Pertsonen produktibitatea hobetzea, arloen artean ulermen hobea lortzea, berrikuntza eta egiteko modu berriak sustatzea, eskuratutako ezagutza berrietan oinarrituta aukera berriak identifikatzea ahalbidetzea eta joera teknologikoei dagokienez eguneratuta egotea.

Beharrianen lehenespen hori oinarri hartuta, horietako bakoitzerako sustatu beharreko ekintza-ildoak zehazten dira, bai eta horiei ekarpenak egin diezazkieketen teknologia digitalak ere (5. taula).

5 premia mota lehenesten dira eta digitalizazioak ekar ditzakeen onurak bistaratzeko dira

ELIKAGAIEN BALIO-KATEA DIGITALIZATZEA		
BEHARRIZANAK	JARDUKETA-ILDOAK	TEKNOLOGIAK
Jasangarritasuna	<ul style="list-style-type: none"> • Animalien ongizatea kontrolatzea. • Ontzien ekodiseinuan laguntzeko aplikazioak garatzea. • Ekoizpenaren kudeaketarako datuak ustiatzea. • Kalitate-desbideratzeak dituzten produktuak identifikatzea. • Ingurumen-inpaktua neurtzeko sistemak. • Ontziak kudeatzeko sistema berriak. • Gizarte-kontzientziazio eta -hezuntza. • Ziurtagiri-sistema homogeneoak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Erabakiak hartzeko algoritmo prediktiboak. • Sentsoriala – IoT konektibitatea • Big Data (Machine Learning eta Data Analytics)
Prozesuen automatizazioa	<ul style="list-style-type: none"> • Inbentarioak eta stockak automatizatzea. • Arloan digitalizazio handiagoa sustatzea. • Lehengaien eta produktuaren kalitatea kontrolatzea. • Hazkuntza-sistema berriak sartzea. • Iruzurra murrizteko eta/edo ezabatzeko sistemak. • Mantentze-lan prediktiboen sistemak ezartzea. • Ergonomia pertsonala areagotzea. • Oraindik ere pertsonak egiten dituzten lanak optimizatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Ikuspen artifiziala • Sentsoriala – IoT konektibitatea • Robotika
Bezeroak erakartzea eta datuak partekatzea	<ul style="list-style-type: none"> • Datuak prozesatzea eta itzultzea erraz kudeatzeko tresnetan. • Ko-produktuak erabiltzeko plataforma digitalak garatzea. • Langileen prestakuntza orokorra ematea. • "Revenue management", sustapen-efizientziarena eta formatuena. 	<ul style="list-style-type: none"> • Big Data (Machine Learning eta Data Analytics) • Sentsoriala – IoT konektibitatea • Zibersegurtasuna • Plataforma digitalak
Trazabilitatea	<ul style="list-style-type: none"> • Kalitate-arazoak identifikatzea. • Produktuaren kalitate-ziurtagiriak. • Eragile guztien arteko gardentasun handiagoa. • Gobernantza eta jabetza deszentralizatuak dituzten balio-kateak sustatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Big Data (Machine Learning eta Data Analytics) • Blockchain
Kultura digitala	<ul style="list-style-type: none"> • IKT profilak identifikatzea (STEAM). • Enpresen marka-irudia hobetzea. • LHko teknikariak eta espezialistak aurkitzeko zailtasuna. • Etorbizunean beharko diren profilak balioztatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Erabakiak hartzeko algoritmo prediktiboak • Zibersegurtasuna • Big Data (Machine Learning eta Data Analytics) • Blockchain

5. taula. "Elikagaien balio-kate digitalizatzea" arloko beharriaren barruko ekintza-ildo lehenetsiak eta oinarritzko teknologia.

6. GA: Elikadura funtzional, osasuntsu eta jasangarri bateko sukaldaritzagarapena

Arlo honetan jarraitu beharreko orientazioa gastronomiari eta sukaldaritzajarduerei buruzko sei erronka handi definituz gauzatzen da, jatetxe-sektorea protagonista izanik, baina balio-kate osora iritsiz.

- 0 xahutzeko balio-kate baterako balio gastronomiko handiko produktu berriak.
- Segmentu berriak xede dituzten produktuak, beharizan berriei erantzuteko.
- Autore-errezeta ikonikoak industrializatzea.
- Jatetxe-sektoreko prozesuak optimizatzea.
- Sukaldaritzasektorea ohitura orekatu berriak sortzeko palanka gisa.
- HORECA sektorerako negozio-eredu berriak sortzen dituzten esperientzia edo ingurune berriak.

Erronka horien inguruko aukera eta beharizanak identifikatzeko azken finean arlo estrategiko horren barruan sustatu beharreko ekintza-ildo lehenetsiak ezartzera eramaten du.

ELIKADURA FUNTZIONAL, OSASUNTSU ETA JASANGARRI BATEKO SUKALDARITZAGARAPENA

Jarduketa-ildoak

Elikagaien balio-kateko koproduktuak eta soberakinak (produktu itsusia/kalibrea/baztertuak/hondakinak) salerosteko eta errebalorizatzeko plataforma:

- Ekoizpenean, elikagai-industrian eta kontsumo handiko eta HORECAko kanaletako banaketan sortutako soberakinak.
- Aurreko puntuko pertsona berberak erosten dituzte.
- Elikagai-mota guztiak: barazkiak, haragiak eta arraina.

Egungo produktuak birformulatzea (osagaien osaera, konposatu bioaktiboak, testura, aurkezpena, etab.) haur eta adinekoen segmenturako, baztertuetan edo lehengai alternatibo berrietan oinarrituta.

HORECA sektoreko efizientzia eta aurrezpena hobetzeko jardunbide egokien gida:

- Sukaldaritzako jardunbide egokiak.
- Kudeaketako jardunbide egokiak.
- Kontsumoko jardunbide egokiak.

Eredu partekatu bat sortzea, sarean arintzeko startupen produktu berritzaileak merkatura irtetea.

Identifikazio, garapen eta jaulkipenaren triangulu arina, honako hauekin:

- Startupak.
- Ekoizpena / maquiladora / pilotatze-lantegiak dituzten ETEak / industria-inbertitzailea
- Testatzea HORECAren eta/edo retailaren testuinguru errealean.

Balio gastronomiko handiko euskal produktu eta errezeta ikonikoak garatzea retail eta sektoreko beste jatetxe batzuei saltzeko, jatetxeekin lan eginez, mikrolab gisa jarduten baitute.

Jatetxe jasangarrien eredu bat sortu eta pilotatzea, ekoizpen-bolumen handiei (hala nola kolektibitateak eta hotel-kate handiak) aplikatu dakiekeen ingurumen-, ekonomia- eta gizarte-mailarekin.

Kolektibitateen eta beste batzuen ekoizpen-gaitasuna eraldatzea, sukalde zentral bihurtu ahal izateko, eta, horrela, 5. gama propioa behar duten jatetxe, retailer eta hotelarietarako aurretik egindakoak *ad hoc* prozesatzeko.

6. taula. Sukaldaritzagarapenaren arloan definitutako erronkekin lotutako ekintza-ildoak.

03. Estrategia zabaltzeko jarduera

2.- Abian jarritako jarduketak

Arestian aipatu den moduan, Elikadura jasagarriko RIS3 estrategia eskarian arreta jartzearen, emaitzetara bideratzearen eta ezagutza ETE-ei eskualdatzearen funtsezko ildoen babesean zabaltzen da.

Hori kontuan hartuta, strategiaren diseinu xehatuaren eta jaulkipenaren hasierako fasean, ahalegin nagusia honetara bideratu da: elikagaien balio-katearen euskal enpresen eskaria xehetasunez ezagutzea (enpresen ezaugarriak, beharrianak eta erronka teknologikoak) eta euskal zientzia-teknologiaren eskaintzan eskaintza hori betetzeko dauden gaitasunak identifikatzea; hala, elikaduraren arloko ezagutza eta berrikuntzaren eskaintza-eskariaren ekosistema orekatua eta behar bezala orientatua garatzeko oinarriak ezarriko dira.




Testuinguru horretan, eskaintza teknologikoa irudikatzearekin, enpresa-eskariaren azterketarekin eta I+G+b-ren dinamizazioarekin lotutako zenbait jarduketa nabarmendu behar dira, elikadura jasagarriaren RIS3 estrategiaren hedapenaren muinaren parte baitira.

Eskaintza teknologikoa irudikatzeko eta garatzeko jarduketak


Eskaintza teknologikoa elikaduraren arlorantz irudikatzearekin eta garatzearekin lotuta, bi jarduketa handi egin dira:

- BRTAK eginiko **Elikadura osasuntsuaren White Paper** delakoa zehaztea; bertan, euskal zentro teknologikoen gaitasun, ahalegin eta espezializazio-mailak identifikatzen dira era ordenatuan.
 - Laguntza-tresna indartsua da elikagaien balio-kateari euskal zentro teknologikoetan aurki daitezkeen euskarri-gaitasunak transmititzeko eta, azken finean, sektorearen barruan I+G+b arloko lankidetzak areagotzeko.
 - White Paper delakoak kalkulatu du **276 LOBko masa ikertzailea** dagoela, elikaduraren sektoreko erronken artean banaketa orekatua dagoela eta **gaitasunak 9 zentro teknologikotan banatuta daudela**.



11. irudia. Elikadura osasuntsuko BRTAko zentro teknologikoen gaitasunak eta espezializazioa.

- BRTAren White Paper delakoan hasitako kontzeptuarekin bat etorritik, bigarren jarduketa bat jarri da abian **eskaintzaren gaitasunen irudikapena hedatzeko**, bai eragileen mailan, bai esparru teknologikoen mailan. Jarduketa horren xedea da Euskadin dauden gaitasunen ikuspegi osoa izatea, elikagaien balio-katearen garapena bultzatzeko.



12. irudia. Elikaduraranzko euskal eskaintza teknologikoaren gaitasunen ikuspegi hedatua.

Euskal teknologia-zentroen gaitasunak, ahalegina eta espezializazio-maila identifikatzen dira.


Enpresa-eskariaren analisi-jarduketak

Enpresen eskariaren azterketari dagokionez, euskal ETEak, estrategiaren xede kolektibo nagusi gisa, ezaugarritzeko jarduketak landu dira, bai eta enpresen beharren eta erronken ikuspegi integratua lortzeko jarduketak ere, hainbat forotako inputak eta azterketa zehatzagoak erakarriz eta bateratuz.

- Xede enpresen ezaugarritzea: RIS3 estrategian elikagaien balio-kateari dagozkion EJSNen arabera, 532 enpresako xede kolektiboa identifikatzen eta ezaugarritzen da. Karakterizazioaren helburua da enpresekin harremanetan jartzeko estrategia baten diseinua erraztea, eta haien jokabidea eta egungo egoera aztertzea, honako alderdi hauetan, besteak beste: balio-kateko beste eragile batzuekin duten harreman-maila (bereziki, I+G+b dinamizatzen duten eragileekin), laguntzei buruz duten ezagutza eta azken urteetan laguntzak zer mailatan erabili dituzten.

Egindako azterketak hainbat ondorio utzi ditu:

- 269 ETEk (aztertutako enpresen % 51) ez dute harremanik enpresen I+G+b arloko eragile dinamizatzaileekin.
- Elikadurako ETE-ekin harreman handiena duten eragileak hauek dira: HAZI (142 enpresa), Basque Food Cluster (86) eta Landa Garapeneko Elkartek (LGE), Konfekoop eta GALP.
- 387 ETEk (aztertutako enpresen % 73) ez du berrikuntzako laguntzarik eskatu.
- 234 ETEk (aztertutako enpresen % 43) ez du harremanik enpresen I+G+b arloko Dinamizazio Taldeko eragileekin, eta ez dira aztertutako laguntza-programetan sartu.



13. irudia. Aztertutako enpresak, enpresen I+G+b arloko dinamizazio-eragileen kopuruarekin izandako harremanei eta eskatutako berrikuntzako laguntza guztiei dagokienez (iturria: geuk egina).

- **Nazioarteko I+G+b programetan sartzeko posizionamendua:** Europako I+G-ren finantzaketak potentzial handia du elikadurako enpresetarako, baina errealitatea da Europako programetara sartzen den kolektiboa txikia dela; gainera, bereziki zaila dela ETEak sartzea. Egoera horren aurrean, Innobasquek azterketa bat egin du, euskal ETE-ek Europako proiektuetan zergatik ez duten parte hartzen zuzenean ezagutzeko, eta, arrazoi horien arabera, enpresa horiek helburu horrekin sustatzeko edo laguntzeko egin daitezkeen ekintzak planteatzen aurrera egiteko

Txostenean ondorioztatu da ETEak Europako proiektuetan sartzeko oztopo nagusiak honako hauek direla batik bat: proposamen korapilatsu bat prestatzeko beharra (aztertutako enpresen % 37), arrakasta izateko probabilitate txikiaren pertzepzioa (% 30) eta Europako laguntzak ez ezagutzea (% 27). Ondorioz, ETE-ei laguntzeko ekintzak ideien eta/edo aukeren identifikazioan zehaztasun handiagoa izatera, proposamenak egiten laguntzera eta proiektuak gauzatzen laguntzera bideratu behar dira.

- **Enpresa-eskari integratua:** elikadura-enpresetarako erronkei eta beharrei buruzko ondorioak eta ikuspegiak biltzean datza. Erronka eta beharrian horiek foro eta mekanismo desberdinetan identifikatu dira, eskariaren ahotsa irismen eta fokalizazio tematiko desberdinarekin atzemateko. Zehazki, Digitalizazioko RIS3 estrategia hedatzean bertan sortutako lantalde tematikoek egindako gogoetetan lortutako emaitzak sartzen dira, bai eta Elikadura Klusterraren Agenda Teknologikoaren emaitzak ere, irismen orokorragoarekin.

Enpresa-eskaria bost arlo handiren inguruan egituratzen da, eta arlo horietan berresten da enpresetarako interesa eta garrantzia:

- **Jasangarritasuna.** Ontzi jasangarriak, xahutzearen murrizketa, baliabideen kontsumo eraginkorra, emisioen eta ingurumen-inpaktuaren murrizketa, erosketa jasangarrirako aukerak, lehengaien eskasiari erantzuteko aurrerapena eta gizarte-erantzukizun korporatiboaren helburua.
- **Elikadurak osasunean duen inpaktua.** Kontsumo-ohitura berriak, nutrizio pertsonalizatua eta elikagai berriak identifikatzea eta horietara egokitzea.
- **Esperientzia bereizgarria eta kontsumitzailearekiko harremana.** Komenigarritasuna, WOW esperientzia eta kontsumitzailearekiko harremana.
- **Prozesuak.** Trazabilitatea, elikagaien segurtasuna eta kalitatea, eraginkortasuna, datuen antzemate eta ustiapena, ekoizpen-bitartekoak eta inbertsioak, balio-kateko komunikazioa, eta bezeroaren eta hornitzailearen arteko harremana eta logistika.
- **Pertsonak.** Talentua erakartzea eta pertsonak eta kultural digitala kudeatzea.

I+G+b dinamizatzeko jarduketak

Estrategiaren hedapenak zabaltze eta dinamizaziora bideratutako zenbait mekanismo ditu, elikagaien balio-kateko enpresen eta eragileen I+G+b jarduerak bultzatzeko, bai trakzio-izaera izan dezaketen handienenak, bai, bereziki, I+G+b-ren zirkuluan sartzeko kanpoko laguntza handiagoaren mende egon daitezkeen txikienenak. Hauek dira I+G+b hedatzeko eta dinamizatzeko funtsezko mekanismoak eta egiturak:

- **Onekin plataforma:** Euskadiko lurralde-garapeneko, egurraren eta elikaduraren balio-kateko eragile guztientzako topagunea da. Plataforma horretatik hainbat zerbitzu eskaintzen eta eskuratzen dira (hala nola lehiakortasuna hobetzeko proiektutarako aholkularitza eta laguntza, balio-kateko beste eragile batzuekiko eta administrazioarekiko harremanak, etab.). Gainera, ekiteko eta enpresa finkatzeko behar diren tresnak ematen dira (izapidetze elektronikoa, estrategia, izapide juridikoak, sektoreen tresna espezifikoak, etab.).
- **Behatokia.** Euskadiko elikaduraren eta egurraren balio-katearen behatokia da, eta tresna bat da sektoreko politika publikoen diseinuari ekarpena egiteko, balio-kate osoaren ezagutza-esparru eguneratu eta oso bat emanaz. Behatokiaren jarduera sei lan-arlotan egituratzen da: Jasangarritasun-adierazleak, esku-hartzearen neurketak, estatistika-eragiketak, merkatuen joerak eta zaintza, elikakatearen prezioak eta kostuak, eta azterlan koituntural eta kualitatiboak.
- **Food4Future nazioarteko ekitaldia.** 2022ko maiatzean Food4Future ekitaldiaren bigarren edizioa egin zen, eta elikagaien eta edarien industriarako erreferentziazko nazioarteko foro gisa finkatu da. Food4Future programak Euskadi nekazaritzako elikagaien polo gisa ikusgai jartzen eta aintzatesten laguntzen du nazioartean, eta sektoreko eragileen arteko harremanak eta networkinga indartzen ditu. Ekitaldiaren ildo desberdinetan (erakusketa, kongresua, sariak, etab.), 7.000 bisitari baino gehiago, 280 enpresa erakusketari eta 200 hizlari aditu baino gehiago bildu dira; hortaz, agerian geratu da tamaina eta eragin nabarmena dituela.
- **Azken miliako eragileen sarea.** Eskualdeko eragileek eta elkarteek parte hartzea du helburu, lurralde osoan I+G+b dinamizatzen lagunduko duen sare bat osatzeko, eta, horrela, elikagaien balio-kateko ETE-en eta haien eguneroko beharren bitartekari izateko. Gaur-gaurkoz, sare hori 22 agente laguntzailek osatzen dute Euskadin (18 landa-garapeneko elkarte, Basque Food Cluster, Itsas Garapen Elkarte, Konfekoop eta Lursail).

Mekanismo eta egitura horien esparruan, Euskadiko elikaduraren I+G+b hedatzeko eta sustatzeko jarduera bizi eta gero eta handiagoa egiten ari da. Jardun horren barruan, nabarmentzekoak da, besteak beste, jarduketa hauek: enpresak aktibatzea I+G+b programetan parte hartu eta aprobetxa ditzaten (guztira, elikadurarekin lotutako 70 proiektu aktibatuta dira HAZINOVA 2022n eta berrikuntzako 17 broker saio egin dira Euskadiko Landa Garapenerako Planaren 16. Lankidetzaren Neurriaren laguntzetan parte hartzea sustatzeko), ETE-en berrikuntza-profilak egitea, Innobasquek eskainitako tresnarekin, RIS3 jardunaldiak eta prestakuntza egitea, edo materialak eta euskarriak sortzea (enpresa-berrikuntzarako laguntzen mapa bat egitea, Onekin plataforman jasotzeko, eta jardunbide egokiak identifikatzea, erreferentziazkatu hedatzeko).

03. Estrategia zabaltzeko jarduera

3.- Laguntza-tresnak

Euskal elikagaien balio-kateak laguntza-tresna eta -programa espezifikoak ditu; gainera, sektore-estaldura zabalagoa duten zeharkako programen onurak jaso ditzake. Identifikatutako tresnak, orientazioaren eta euskarri-esparruaren arabera, lau arlo handitan sailkatzen dira (I+G, Berrikuntza, Digitalizazioa eta Talentua), eta bereziki nabarmentzen dira enpresek berrikuntzari laguntzeko dituzten bide anitzak.



(1) Sailburuordetzaren beste programa batzuk:
 - Nekazaritzako programak: Laborantza estentsiboen dibertsifikazioa, animalien ongizatearen ziurtagiria lortzea, ekolpen ekologiko ziurtaturaneko trantsizioa, berrikuntzaren arloko nekazaritzaren dibertsifikazio azpieskoria.
 - Arrantza programak: EAEko arrantza- eta akuikultura-sektorea (IAEF), arrantza-eremuetako garapen Jasangarriko proiektuak (ASTET-IAEF), Elikateak, itsas eta arrantzaren arloko bekak, Itsasoratu.
 - Elikagai Industriako programak: MAE Ekolpena, MAE Inbertsioa, Basque Wine sustapena, kalitate-araubideak, ARDOINB.

14. irudia. Elikagaien balio-katerako Euskadiko laguntza-programak.

	Zeharkakoa (Z) edo espezifikoa (E) ²	Aurkeztuta ko proiektuak	Onartuta ko proiektu ak	Onarpen- ratioa	Mol- aun
Elikadurako I+G+b	E	56	24	% 43	5,4
Hazitek Estrategikoak	Z	3	1	% 33	3,7
Hazitek Lehiakorak	Z	22	15	% 68	2,2
Hazinnova	Z	-	37	-	
Onekin Berrikuntza	E	71	67	% 94	0,6
Leihatuta Berria	E	196	128	% 65	62,3
Bioekonomia	Z	27	18	% 67	2,7
Gastrokop	E	34	25	% 74	0,6
16. neurria, Lankidetzaren	E	34	31	% 91	2,8
Nekazaritzako Sailburuordetzaren gainerako programak ³	E	161	161	% 100	0,2
Arrantza Sailburuordetzaren gainerako programak ⁴	E	286	284	% 99	45,3
Elikagaien Industriako Sailburuordetzaren gainerako programak ⁵	E	426	348	% 82	22,3
Onekin Digitala	E	45	40	% 89	0,3
Digitalizazioa	E	97	76	% 78	5,4
Ikertalent	E	68	20	% 29	1,7

Programen 2021eko deialdiei dagozkien datuak.

7. taula. Elikadura osasuntsu eta jasangarriaren esparruko laguntza-tresna nagusien adierazpena eta Elikagai Industriaren laguntza-tresna nagusien adierazpena

² Zeharkako programen datuak **horietan elikaduraren sektoreari dagozkionak dira**. Bioekonomia izan ezik, programaren guztizko datuak ez dira erabilgarriak.

³ Nekazaritzako gainerako programak: Laborantza estentsiboen dibertsifikazioa, animalien ongizatearen ziurtagiria lortzea, ekoizpenaren eraginkortasunaren hobekuntza.

⁴ Arrantzako gainerako programak: EAEko arrantza- eta akuikultura-sektorea (IAEF), arrantza-eremuetako garapen jasangarriko proiektuak.

⁵ Elikagai Industriako gainerako programak: MAE Ekoizpena, MAE Inbertsioa, Basque Wine sustapena, kalitate-araubideak, ARDOIN.


Mobilizatutako aurrekontua	Proiektu bakoitzeko mobilizatutako batez besteko aurrekontua	Programaren aurrekontua	Emandako dirulaguntza	Programaren aprobetxamenduratioa	Elikadurarako ekarpena (soilik Zeharkakoak)
40 M€	225.000 €	2,50 M€	2,19 M€	% 87,7	E/A
76 M€	3.760.000 €	E/A	0,94 M€	E/A	% 1,4
29 M€	153.000 €	E/A	0,59 M€	E/A	% 2,9
-	-	-	-	-	% 18,0
68 M€	10.200 €	0,45 M€	0,34 M€	% 75,1	E/A
33 M€	487.000 €	21,64 M€	17,48 M€	% 80,8	E/A
70 M€	150.000 €	3,08 M€	1,59 M€	% 51,5	-
61 M€	24.000 €	2,50 M€	0,53 M€	% 21,1	E/A
85 M€	92.000 €	1,43 M€	1,42 M€	% 99,6	E/A
23 M€	1.500 €	2,30 M€	1,42 M€	% 62,0	E/A
95 M€	162.000 €	14,22 M€	14,29 M€	% 100,5	E/A
22 M€	64.000 €	17,47 M€	12,09 M€	% 69,2	E/A
86 M€	8.900 €	0,45 M€	0,21 M€	% 46,8	E/A
42 M€	71.000 €	2,00 M€	2,00 M€	% 99,8	E/A
71 M€	86.000 €	1,77 M€	1,71 M€	% 96,5	E/A

erazleen laburpena (iturria: geuk egina, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritzako, Arrantzako eta Arrantza Sailburuordetza.

ik baitira. Ekologiko ziurtaturantzko trantsizioa, berrikuntzaren arloko nekazaritzaren dibertsifikazio azpisektorialeko proiektuak (ASTET-IAEF), Elkartek, itsas eta arrantzaren arloko bekak, Itsasoratu. IB.


7. taulak tresnen adierazle gako batzuk erakusten ditu, tresnen dimentsioa eta elikadura-sektoreak horietan duen partaidetza- eta aprobetxamendu-maila irudikatzen. Datu horiei erantsitako analisitik gogoeta hauek azpimarratu behar dira:

- Guztira 1.222 proiektu mobilizatu dira, gehienak Berrikuntzaren arloan (1.062 proiektu), eta gainera, proiektuen onarpen-ratio handiena eskuratu da, % 86 (I+G-ko % 43ren eta Talentuko % 29ren aldean).




15. irudia. Programa-arlo bakoitzeko onartutako proiektuak eta onarpen-ratioa (iturria: geuk egina, Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetza).

- Programen aurrekontua ia **70 M€-koa** da, eta Berrikuntzak aurrekontu horren % 90 hartzen du. Gainerakoa modu orekatuan banatzen da gainerako hiru arloetan.




16. irudia. Aztertutako programen aurrekontu atxikia (iturria: geuk egina, Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetza).

- **Onartutako proiektuetan mobilizatutako aurrekontua 145 M€-tik gorakoa da.** Berrikuntza da aurrekontu gehien mobilizatzen duen arloa (guztiaren % 91), eta Digitalizazioa eta I+G maila berean daude (guztiaren % 4).




17. irudia. Onartutako proiektuetan mobilizatutako aurrekontua (iturria: geuk egina, Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetza).

- **55 M€-tik gorako dirulaguntzak** eman dira, programen aurrekontuaren aprobetxamendu-tasa orokorra % 79koa da, eta zenbateko hori handiagoa I+G (% 88), Digitalizazioa (% 90) eta Talentua (% 97) arloetan.



18. irudia. Emandako dirulaguntza (M€) eta programen aurrekontuaren kontsumo-ratioa (iturria: geuk egina, Nekazaritzako, Arrantzako eta Elikagai Politikako Sailburuordetza).


I+G arloaren nazioarteko finantzaketari dagokionez, Euskadik Horizon 2020 programan elikaduraren esparruan izandako balorazioak argi erakusten du goranzko joera dagoela. Euskadik 30,7 M€-ko itzulera lortu du elikaduraren arloan, hau da, lortutako itzulera osoaren % 3; horri esker, hasieran ezarritako helburua gainditu da, 29,5 M€-koa baitzen.



Iturria: Innobasque

19. irudia. Euskadik Horizon 2020 programan izandako itzuleren banaketa, RIS3 espezializazio-esparruen arabera (M€, 2014-2020 aldi osoa).

Aldi horretan, elikaduraren ekarpena areagotuz joan da, eta urtero itzulera handiagoa lortzen da. Izan ere, aldiko azken hiru urteetan itzulera bikoitza eskuratu da (20,1 M€), lehenengo lauetan lortutakoaren aldean (10,5 M€). Guztira, 65 proiektu egitea lortu da, eta 44 euskal erakundek parte hartu dute (enpresa eta ezagutza-eragileen artean).



Iturria: Innobasque

20. irudia. Euskadiren parte-hartzearen adierazleak Horizon 2020 programako elikaduraren esparruan.

Zenbateko orokor horien azpian, eragile-tipologiari erreparatuz gero, ikusi da eragile teknologikoen euskal parte-hartze indartsua dagoela, eta Europako I+G arloan jarduera garrantzitsua egiten dutela:

- Euskal itzuleraren % 67 hartzen dute; nabarmentzekoak dira Azti, Tecnalia, Neiker eta Gaiker, proiektu-kopuruari dagokionez presentzia handiagoa dutelako.
- Proiektu-buru guztiak eragile teknologikoak dira; zentzu horretan, Tecnalia nabarmentzen da, euskal lidergoa duten 13 proiektutatik 6ren buru izan baita.

Aldiz, enpresak kolektibo parte-hartzaile ugariena bada ere (28 enpresa, euskal parte-hartzaileen % 64), itzuleraren % 18 soilik hartzen dute, eta ez dira Europako proiektuen buru izatera iritsi. Gainera, Euskadiko elikaduraren balio-kateko enpresen kolektiboaren dimentsioari buruzko termino erlatiboetan, Europako parte-hartzea oso puntuala da, eta etorkizunera begirako hobekuntza-ibilbide zabala du, bai parte-hartzaileen kopuruari dagokionez, bai lortutako itzulera-kantitateari dagokionez.

Europar parte-hartzea oso puntuala da, eta etorkizunerako hobekuntza-ibilbide zabala du

04. Etorkizunera begirako ikuspegia

Elikadura Jasangarriaren RIS3 estrategia zabaltzeko lehenengo etapan, ahaleginak egin dira oinarriak ezartzeko, bai maila estrategikoan bai gobernu eta funtzionamendu operatiboko mailan. Ildo horretan, aurrerapen nabarmenenak alderdi hauetan labur daitezke:

- Gobernu-egitura bat dugu, Euskadiko elikaduraren helize hirukoitzeko eragile gakoen parte-hartzearekin eta konpromisoarekin (administrazioa, eskaintza zientifiko-teknologikoa eta enpresak).
- 2030ZTBPn ezarritako oinarritzko estrategia sakondu dugu, eta haren jarduketa-eremuak, erronkak eta ekintza-ildoak zehatzago xehatu.
- Nabarmen aurreratu dugu euskal eskaintza zientifiko-teknologikoaren gaitasunak elikaduraren arloko beharrietara goratzen eta enpresa-eskariaren erronkak eta aukerak identifikatzen.
- Elikagaien balio-kate osoa estrategiaren eta haren inpaktuen parte egiten laguntzeko mekanismoak eta egiturak ditugu (Onekin plataforma, Behatoki, bitarteko eragileen sarea, laguntza-tresnak, etab.).
- Proiektu eta ekimen interesgarriak ari dira abian jartzen, bai ikerketara bideratuta, bai enpresetan teknologiak eskualdatzera, garatzera eta txertatzera bideratuta.

2023-2024 aldirako, eta eskaintza teknologikoaren eta enpresa-eskariaren gaitasunak irudikatzeari dagokionez eskuratutako posizioa oinarri hartuta, gidaritzataldearen jarduerak eta egiturak (lantalde tematikoak eta zeharkakoak) maila operatiboago batera jaitsi eta sakondu behar du, eta eskaintzan dauden gaitasunak erabiltzailearengana (enpresetara) bideratzea eta hurbiltzea izan behar du ardatz, bai eta ETE-etan I+G eta

berrikuntzako proiektuak dinamizatzea eta aktibatzea ere, beren profilaren arabera.

Nolanahi ere, aurrera egiten jarraitzeko erronkak eta ildoak dira dagoeneko ezagunak dira eta aipatu dira agiri honetan, baina horiek gogoraraztea komeni da. Erronka eta ildo horiek oinarritzko alderdi hauetan laburbiltzen dira:

- Lantaldeen egitura eta jarduerak mantentzea eta garatzea, eta horiek baliabide malgua, eraginkorra eta estrategiak lortu dituen helburuetan inpaktua izatea eraginez.
- Eskaintza teknologikotik soluzio eskalagarriak eta lehiakorrak sortzea, enpresen kolektibo zabaletan, eta, bereziki, ETE-etan hobetzeko potentzialarekin.
- ETEak mobilizatzea, ezagutza eta teknologia xurgatzeko duten gaitasunari mesede eginez.
- Elikagaien balio-katerako I+G+b arloari laguntzeko programak ahalik eta gehien aprobetxatzea, eta dauden programak edo, hala badagokio, berriak enpresen eskari eta lehentasunetara egokitzea kontuan hartzea.

Horri guztiari esker, strategiaren lehen hedapen-aldi honetan hasitako norabide onean aurrera egiten jarraitzea espero dugu, eta euskal elikagaien balio-kateak Euskadiko espezializazio-arlogisabertan jarraitako igurikimenei erantzutea, bere maila teknologiko eta berritzaileagatik eta strategiaren barruan garatutako jardueretan sortutako aberastasunagatik.

Euskadiko Elikadura Jasangarriaren RIS3 Estrategia

(2024ko
zerumuga)

2023ko otsaila